


Ntzahezk Untza Hezkuntza Tza

2021-2022

P R O G R A M A

TABAKALERA



Donostia / San Sebastián

Kontaktua
hezkuntza@tabakalera.eus
943 118 855



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

tabakalera.eus

Aur- kibi- dea

04 TALDEENTZAKO LANTEGIAK

05 # ARTE GARAIKIDEA

05 Erakusketak

05 _ ZIN EX. Gorputza eta
arkitektura

06 _ CHRIS KRAUS. Pelikulak lehen eta
gero

06 _ EMMA KUNTZ. Cosmos.

07 _ EVIL EYE.

07 SITU-AKZIOAK. Esperimentaziorako
paisaia-laborategiak

08 # ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

08 _ JARRI BELARRIA: soinua

08 _ BERDE KROMATUA: ikus-
entzunezkoak

09 _ MUGI, GELDI, MOVIE: animazioa

09 _ KLIK!: argazkigintza

09 _ GAME ON: bideo-jokoak

09 _ SEKUENTZIA ASKEA: zinema
esperimental

10 _ ZINEMARAAAAA: zinema-aretoa ireki
da

II # SORKUNTZA-LABORATEGIAK

12 _ HARRI, ORRI, AR!: autoedizioa

12 _ TIN.TA!: estanpazioa

12 _ 3Dn SORTZEN: fabrikazio digitala

12 _ KONEKTATZEN: elektrizitatea,
elektronika eta programazioa

13 _ ADI GORPUTZ HORRI : performance
lantegia

13 _ ARAU EROA: desnormalizazio
lantegia

14 DEIALDIAK

14 _ ESKOLA ALDIRIAK

15 _ IKASGELATIK MEDIALABERA:
eskolekin proiektuak

16 ESKOLA: IKERKETA, PENTSAMENDUA ETA HAUSNARKETA

17 _ erro(re)tik: mintegia

18 _ IRAKASLE-TOPAKETAK

Sarrera

Txarto edo oker dagoen zerbaiti errorea esaten zaio. Baina zeren arabera neurtzen da okertasuna? Nola ulertzen da zuzentasuna? Zer kokatzen dugu trebetasun edo normaltasunaren lekuan? Azken hilabeteetan horrelako galderei buruz pentsatzen saiatu gara hezkuntza eta artearen gurutzaketatik abiatuta. Horretarako testuingurua eman diguna bi urtez garatzen ari garen *erro(re)tik* proiektua izan da, gure praktiken baitan errorea birpentsatu eta barrura begira -errotik- hausnartzeko helburuz sortutako ekimena.

Okertzea, beraz, zeri dagokionez? Zer esan nahi du hezkuntzan zerbait ondo ez ateratzeak? Nork zehazten du edo zein espektatibari erantzuten dio 'ondo ateratze' horrek? Zein arauaren menpe antolatzen dira ondo eta txarto dauden gauzak ikaskuntza-prozesuetan? Zertan oinarrituta neurtzen da kultura-erakunde baten hezkuntza-programen arrakasta? Tabakaleratik beste ikuspuntu batzuk landu nahi ditugu, bakarra ez dagoela pentsatu eta gertatzen denari leku berrietatik begiratzeko. Izan ere, kultur zentroetan tresna ugari ditugu gauzei, terminoei eta egiteko moduei buelta eman ahal izateko. Ongia eta gaizkia, araua eta debideratzea, okerra eta zuzena bezalako binomioak berrikusi

nahi ditugu, enuntziatze-leku batzuk zalantzan jartzea ezinbestekoa delako.

Horregatik erratzea proposatzen dugu, ideia bera mugimenduan jarri eta bilaketa aukerak aktibatu ahal izateko, leku zurrun batean geratu gabe, eta aurreikusitako egietatik aldenduz. Tabakaleran egoteko modu berriak bilatu nahi ditugu, normalak ez direnak, arautik kanpo geratzen direnak. Gure plazara iristen den edonorekin harremana eraiki nahi dugu, eta aldi berean, konfort eremu bilakatu zaigun plaza horretatik irten ere egin nahi dugu, gorputz anitzez osatutako espazio bat sortuz. Aniztasunaren alde egiteak geure buruari aniztasunaren fokoa non eta norantz jarri nahi dugun galdetzea esan nahi du, ohitura dugulako normaltasunetik kanpo dauden gorputz eta izateko moduak bakarrik sartzeko zaku horretan, horiek akats eta errore gisa irakurriz. Fokoari buelta eman behar diogu eta segurtasun-espazioak eraikitzeo, beste behin ere, segurtasuna nola ulertzen dugun pentsatzea proposatzen dugu.

Txarto edo oker dagoen zerbaiti errorea esaten zaio, baina Tabakaleratik bizitza eta ikaspenari deitu nahi diogu erre.

Taldeentzako lantegiak

Talde lantegietan elkarrekin egon eta elkarrengandik ikasteko espazioak sortu ohi ditugu, kolektiboki bizitzeko esperientziak aktibatuz. Akatsak bizi eta ospatuko ditugu, gutako bakoitzaren izateko, egoteko eta egiteko modua erdigunean jarriko dugu, “normala” den hori zalantzan jarriz eta aukera berriei bide emanez.

Era askotakoa izan daiteke horretarako abiapuntua; elkarrekin erakusketa bat ikusi eta zentzua bilatzea, ikus-entzunezkoetara hurbilketa egitea, edo sorkuntza laborategietan trasteatzea. Lantegi bakoitzak taldearen nolakotasuna hartzen du abiapuntutzat, eta prozesua bizitzean jartzen dugu arreta, ez horrenbeste emaitzan. Esperimentazioari aukera emanez, ezagutza eta egoteko modu berrietara egokitzen gara. Izan ere, esperimentazioak gure konfort eremutik ateratzen gaitu, lekuz

aldatzen gaitu; aukera ematen dio hasiera batean espero ez genuen horri, ondokoari beste leku batetik begiratzeko aukera eskaintzen digu, jolasari ateak irekitzen dizkio, galdera berrietarako aukera sortzen da, akatserako aukera, ziurgabetasuna aldarrikatzekoa...

Ausartuko zarete?

2021/22 ikasturterako lantegien proposamena hiru bloketan antolatu dugu: arte garaikidea, zinema eta ikus-entzunezkoak, eta sorkuntza laborategiak. Hauen bidez Tabakalerako lan ildo eta baliabideetara hurbildu gaitzeko.

I.I_

Arte garaikidea

Arte garaikidearen eremuan, gaur egun garatzen ari diren praktika eta begirada artistikoetara gerturatuko gara. 2021/22 ikasturtean zehar hezkuntza- eta arte- praktikak gurutzatuko ditugu, beste behin ere.

Tabakalerako erakusketetan landutako edukien bitartez, gorputz disidenteen presentziaz, eraikuntza kulturalen efektuez, eta munduan egoteko moduez hausnartuko dugu datozen hilabeteetan. Arteak gure ingurura begiratzeko gaitasun kritikoa areagotu dezake, eta horrek gure burua birpentsatzeko aukera ematen digu.

Datozen erakusketetan hainbat gai, ideia eta kontzeptu azalduko dira, hala nola zinema hedatua, arkitektura eta espazioak, gorputza eta performancea, jendarteak egituratzen duen kontrolaren inguruko hausnarketa, plastika, feminismoa... Lantegi hauen helburua ez da erakusketetako edukia itzultzea. Aldiz, normalean urrun dagoen eta arrotza egiten zaigun arte-erakusketa eremuan, ahotsak gehitu nahi ditugu, pentsamendu dibergentea landu, eztabaida piztu eta egoteko eta parte izateko modu berriak entseatu nahi ditugu. Etor zaitez artearen ideia zabaltzera, mundu berriak osatzera, erakusketa zure presentziarekin astintzera.

Datak:

2021/22 ikasturtea

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:00-18:00

Iraupena:

1:30 min

Pertsona kopurua:

15 pertsonako taldeak

Norentzat:

Hezkuntza-zentroak, elkarteak, unibertsitateak.

Izen-ematea:

hezkuntza@tabakalera.eus

(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu).

Z
E
R
O
2
A
K
1
/
2
2
J
U
S
K
E
T
A
K

ZIN EX. Gorputza eta arkitektura

Zinema hedatuaren inguruko seriearen bigarren erakusketa honetan, ikus-entzunezko esperientzia, zine-aretotik haratago zabaltzen da, bai erakusketa-aretoan eta bai artelanetan gorputza eta arkitektura lotuz.

Ikusi ahal izango diren lanetan, botere harreman garaikideen gorputzasuna, jendartearen dauden arauak, ikuspegi feminista eta sentsibiltate posthumanoa eta ingurumenaren degradazioaren inguruko hausnarketa kritikoa landuko dira, besteren artean.

Lantegia

Harremantzeko ditugun kode eta ohiturak aztertuko ditugu (norekin eta noiz besarkatzen garen agurtzeko, nori ematen dizkiogun muxuak ezagutzerakoan, zein egoeratan ematen dugun eskua, etab.) Nola aldatu dira kode horiek gaur egungo egoera berrian? Nor geratzen da kode horietatik kanpo? Gorpuzkera berriak sortu direla ikusita, haiei begiratzeko modu berriak sortu ditzakegu?

Ikus-entzunezko materialak ezagutuz eta gorputz dinamikien bidez naturalizat jotzen ditugun praktika horien gainean kode iraultzaile propioa sortuko dugu.

Datak:

2021eko irailaren 10etik 2022ko urtarrilaren 9ra arte

CHRIS KRAUS.

Pelikulak lehen eta gero

Chris Kraus (AEB, 1955) artea eta literatura esparruetan kultur ikono bat da. Zinea egiten hasi bazen ere, ondoren sortutako testu literario eta irudiaren ingurukoak izan dira ondorengo artista askorentzako erreferente eta mugarri. Erakusketan filmografia eta testuen arteko elkarrizketa planteatzen da, izan ere denbora pasa den arren, performatibitatearen erabilera, lengoia desberdinen nahasketak eta prozesu kolektibotik ekoizteak, gaurkotasan handia ematen dio bere lanari.

Lantegia

Eguno irudi kontsumoaren gaindosia kontuan izanda, zer gertatuko litzateke irudien ordeztuak jarriko bagenu?

Edota filmetan testuak agertuko balira? Irudien eta hitzen arteko harremanak landu eta duten potentzialitatearekin narrazio berriak sortuko ditugu.

Datak:

2021eko irailaren 10etik - 2022ko urtarrilaren 9ra arte

EMMA KUNTZ. Cosmos.

“Nire artea XXI. mendekoa da”, iragarri zuen Emma Kunz (1892-1963) ikertzaile, naturopata eta artista suitzarrak. Bere iragarpena betetzen ari dela dirudi: 1973an aurkeztu ziren lehen aldiz Aargauko Kunsthausen, eta Emma Kunzen marrazkiak Venezian, München, Londresen eta Tel Avivén erakutsi dira berriki. Bai artistak berak eta baita bere lanek ere artista garaikideen interesa etengabe piztu dute. Pendulu, iparrorraz eta erregela bidez egindako marrazkietan, bere ikerketa-jardueretan, bere gaitasun sendagarri eta argigarrietan eta, batez ere, gizakia ulertzeko ikuspegi holistikoa zentratu dira, naturarekin bat datorren eta artea sortzea barne hartzen duen zerbait den aldetik.

Lantegia

Emma Kunzen kosmologiatik abiatuta, marrazketa lantegi bat egingo dugu, gure kosmograma pertsonalak sortuz, eta intuizioa eta neurketaren artean mugituz. Modu ludiko eta eraikitzailean, paperean, pendulu, iparrorraz eta erregela bezalako tresna sinpleak erabiliz, eskala haundiko proposamenak bideratuko ditugu.

Datak:

2022ko urtarrilaren 28tik - 2022ko maiatzaren 15era

EVIL EYE.

“Izpi bisualaren” metaforatik hasi eta Pierre Jules Cesar Janssenen “argazki-errebolberrerraino”, optikaren historiak eta balistikaren historiak ibilbide paralelo bat partekatu dute, dronaren figurarekin bat eginez amaitzeko, hil dezakeen kamera bat, hain zuzen ere. Baina ibilbide tekniko-zientifiko horren azpian, nahiz eta harekin batera jardun, arraza- eta genero-elementuz betetako ikusgarritasun-erregimen oso bat dago. Erakusketa honen bidez, ikuspegi horren egituratze-indarra kartografiatu nahi da, bere magnitude zehatz eta abstraktueta, honako eremu hauek zeharkatzen dituzten hainbat sekuentzia tematizatuz: aireko ikuspegia eta erabateko gerra, X izpiak, laser-ikuspegia eta gardentasuna, pantaila eta begiradaren inbertsioa.

Lantegia

Azken urteetan kale espazioetan segurtasun mota berriak bizitzen edo sumatzen hasi gara. Musukoen erabilpena, gel banagailuak, segurtasun distantziak, aforo neurtuak... Badira gizartearen segurtasunean edo kontrolean sakontzeko garatzen ari diren hainbat teknologia ere, esate baterako droneak edo aurpegi errekonozimendu kamerak. Inteligentzia artifizial mota hauek, lurralde desberdinetan oso azkar zabaldu dira, eta noski, bere erabileraren inguruan polemika eta ezadostasuna ere sortu dira. Egoera honetatik abiatuta galdera batzuk bururatzen zaizkigu: Non geratzen da gure pribatutasun eskubidea? Non daude teknologia horien erabileraren mugak? Lantegi honetan teknologien bidez teknologien inguruan hausnartuko dugu.

Datak:

2022ko maiatza - abuztua

2 0 2 1 / 2 2
S I T U - A K Z I O A K

SITU-AKZIOAK. Esperimentaziorako paisaia-laborategiak

Proiektu honek esplorazio sensorialerako jolas irekiak diseinatzea planteatzen du. Edizio bakoitzean, guztion artean (txiki zein nagusi) Tabakalerako espazio bat eraldatzen dugu. Jolas librean jarduteko txikienek eta txikieneztat pentsatu eta sortutako proposamenak gauzatzen ditugu.

Esperimentaziorako paisaia hau proiektuan interesa duten familiekin batera urrian hasiko dugun prozesu partehartzaileraren bidez pentsatu, diseinatu eta sortuko dugu. Era berean, ikasturtean zehar, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako lantegiak bideratuko ditugu, eta bertan elkarrekin sortu, jolastu eta ikasi ahal izango dugu.

Argia eta kolorea

Zer gertatzen da argi izpiek ispilu batean isla egiten dutenean? Eta kolore erruleta bat mugimenduan jartzen dugunean? Nola osatzen dira ortzadarrak? Lantegi honetan, argia, kolorea eta mugimendua izango ditugu jolaserako ardatz.

Lantegiaren iraupena 45 minutukoa izango da.

I.2_

Zinema eta ikus-entzunezkoak

Zinean sartu eta film bat ikusi, ikus-entzunezko bat egin, begiak itxi eta inguratzen gaiten soinuari adi egon. Gure munduari begiratzeko tresnak eskuratu daitezke ikus-entzunezkoen bidez, eta horiek munduaren ikuskera alternatiboak eraikitzeko erabili ditzakegu. Narratiba hegemonikoez sortzen dituzten istorioak hautsi nahi dira hemen eskaintzen diren lantegi, baliabide eta esperientzien bidez.

Zine-aretoa joan eta film bat ikusi, kroma teknika ezagutu, soinua landu edo ikus-entzuntzeko esperimentalak sortzeko aukerak eskaintzen dira, besteak beste.

Datak:

2021/22 ikasturtea

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:00-14:00

Iraupena:

1:30 min

Pertsona kopurua:

15 pertsonako taldeak

Norentzat:

Hezkuntza-zentroak, elkarteak, unibertsitateak.

Izen-ematea:

hezkuntza@tabakalera.eus

(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu).

JARRI BELARRIA: soinua

Imajinatu film bat ikusten ari zarela eta pantaila beltz jartzen dela. Uste duzu istorioa ulertuko zenukeela soinuaren bidez soilik? Entzumenaren bidez emozioak eta tentsioak hauteman ahal izango zenituzke? Zure emozioak azaleratu ahal izango zenituzke? Lantegi hauetan soinua narrazio-elementu gisa landuko dugu eta soinu-banda bat osatzen duten fase guztiak aztertuko ditugu: musika, zinema-generoa, ezaugarriak edota elementu bisual batean elkarriketak sartzea.

BERDE KROMATUA: ikus-entzunezkoak

Mugimenduzko irudiak inguratu egiten gaitu etengabe, gurekin dago kalean, etxeetan, garraiobide publikoetan, telefonoetan. Oldea gorabehera, gutxitan aurkitzen dugu ohiko narratibak hausten dituen eta munduaren begirada apurtzaile bat planteatzen duen ikus-entzunezkoak. Nola sortu beste irudikapen batzuk? Lantegi honetan, grabatzeko eta editatzeko gailuak erabiltzen ikasten dugu, “kroma” esaterako, bideo-kamerak eta edizio-ekipoak. Zein da kontatu nahi duzun istorioa?

MUGI, GELDI, MOVIE: animazioa

“Stop motion” ikus-entzunezko teknika irudiak mugimenduan sortzeko animazio-barietate zaharrenetako bat da. Lantegi honetan, teknika tradizionalan sakontzen da, eta sortzeko aukerak arakatzen dira. Edozein materialek balio du istorioak sortzeko: gure gorputzek, plastilinak, objektuek, marrazkiek edo argazkiek, besteak beste.

KLIK!: argazkigintza

Klik! Nork ez du atera sekula argazkirik? Gaur egun, mundu guztian zehar, gehienok dugu eskura argazkiak ateratzeko kamera bat: argazki kameretan, mugikorretan, tabletetan, ordenagailuetan... Lantegi honen bitartez, argazkilaritzaren lehen urratsak ikasiko ditugu. Gure eskura ditugun baliabideekin, zein aukera ditugun ikusi eta ahalik eta zuku gehien ateratzen ahaleginduko gara. Diafragma, obturazio-abiadura, edo ISO bezalako hitzak zer diren ezagutu eta enkoardatze ezberdinen adibideak ikusiko ditugu. Zure argazkiekin nahi duzun hori kontatu ahal izateko hainbat ariketa jorratuko ditugu.

GAME ON: bideo-jokoak

Beti gustatu izan zaizu jokatzea, baina, inoiz pentsatu duzu zure bideo-jokoa sortu zenezakeela? Gaur egun bideo-jokoak sortzea sekula baina errazagoa zaigu. Lantegi honetan bideo-joko bat sortzeko lehenengo pausoak ikasiko ditugu, oso modu dibertigarri eta atseginean: agertokiak, pertsonaiak, kontrolak, musika... Kontuan hartzeko gauza asko daude!

SEKUENTZIA ASKEA: identitatea eta zinema esperimentalak.

Zinema esperimentalean oinarrituta, ohiko narratibetatik urruntzea proposatzen dugu. Gure identitatea berrirudikatu eta kontatzeko modu berriak sortu nahi ditugu ikus-entzunezkoak baliabide gisa erabiliz.

Nola aurkezten dugu gure burua sare sozialetan? Zein errealitate ezkututzen dute irudi horiek? Zein kokapen dute gure gorputzek bestean aurrean jartzen garenean? Nola baldintza gaitzake gure identitateak? Identitatea eraldatu daitekeen zerbait da? Lantegi honetan norbere identitateaz eta identitate kolektiboaz hausnartzen da, ikus-entzunezko ereduak ikusi eta gure pieza propioak grabatzen ditugu.

ZINEMARAAAA: zinema-aretoa ireki da

Filmek egunerokoan presente ditugun bizipen, egoera, eztabaida eta gai ezberdinak irudikatze gaitasuna dute. Aukera ematen digute elkarrizketa eta prozesu ezberdinak abiatuz, inguratzen gaituzten gaiekiko begirada kritikoa eraikitzeke. Zinemaraaaa proiektuan aukeratutako filmak baliabide hezitzaile bezala erabiltzen ditugu, ikus-entzunezkoaren formaren garrantziari ere arreta eskainiz.

Ikasturte honetan zehar, elkar eragiten duten bi proposamen ditugu.

Batetik, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle-taldeek Tabakalerako zine-aretoan ikusteko aukera izango duten hiru film proposatzen dira. Aukeraketa irakasle talde batekin, Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleekin eta Tabakalerako zinema arloarekin batera burututako prozesuaren emaitza da.

Bestetik, filmen elementu ezberdinak deslotuko ditugu (eduki mailakoak, zinemagintzarekin lotutakoak, praktikoagoak,...) hezitzaileekin tresna gisa erabili eta beraien prozesu propioak abiatzeko aukerak zabalduz.

Datak:

Abenduak 16, 17: *Tódalas mulleres que coñezo*
Martxoak 30, 31: *Tomboy*
Ekainak 8, 9: *Güeros*

Ordutegia:

10:00-12:00

Iraupena:

120' gehienez.

Pertsona kopurua:

1. zine-aretoko edukiera bete arte.

Norentzat:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak.

Izen-ematea:

hezkontza@tabakalera.eus
(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu).

TÓDALAS MULLERES QUE COÑEZO

XIANA DO TEIXEIRO, SPAINIA, 2018,
71' DCP JB GALIZIERA-EN-ES, AZP. ES

Pertsonaletik politikora, hainbat emakumeren bizipenek agerian uzten dute zenbateraino den maskulinoa eta bortitza kalea gaur egun. Lagunekin, kideekin eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin izandako hiru elkarrizketa esanguratsuen bidez, zuzendariak beldurra sustatuko ez duen beldurraren inguruko diskurtsoa egituratzeko saiakera egin du; bortitza izango ez den indarkeriari buruzko diskurtsoa.

Zinema zuzena eta horizontala, autokritika eta kontakizunaren haustura. Sororitate unibertsalari buruzko istorioa.

TOMBOY

CÉLINE SCIAMMA, FRANTZIA, 2011,
82' DCP, JB FR, AZP. EUS

Familia frantziar bat auzune berri batera aldatu da udako oporraldian euren bi alabekin, 10 urteko Laure (Zoe Heran) eta 6 urteko Jeanne (Malonn Levana). Jean Seberg bezala ilea moztuta eta mutiko jokamoldearekin Laure mutila dela, Mikael, sinestarazi die auzuneko lagun berriei. Uda jolasean igarotzen ari dira eta lagun berria, Lisa (Jeanne Disson) maitemindu egingo da berarekin. Mikael eta Lisaren arteko harremana gero eta estuagoa da eta nerabeen arteko amodio-istorioa sortuko da. Gurasoen etxean eta ahizpa gaztearekin Laure da, eta kalean, lagun berriein eta neskalagunarekin, Mikael. Zoritxarrez, gezurra ezin da betiko gorde eta gauzak aldatzen hasiko dira. Bi aste falta dira eskolara bueltatzeko. Laure eta bere gurasoek errealitatea eta bere ondorioak onartzen ikasi beharko dute.

GÜEROS

ALONSO RUIZPALACIOS, MÉXICO, 2014, 106´ ES

Sombra eta Santos linbo arraro batean bizi dira UNAMeko greba hasi zenetik. Zein alde hartu jakin gabe, eskolarik gabe, asmorik gabe, denbora pasatzeko modu arraroak asmatzen dituzte lagunek. Baina bere errutina eten egiten da Tomasen, Sombraren anaia gazteenaren, ustekabeko etorrerarekin. Tomasek jakingo du bere heroia, Epigmenio Cruz, hirurogeiko hamarkadako abeslari mitikoa, ezkutuko ospitaleren batean hilzorian dagoela eta Sombra eta Santos omenaldia egitera joateko konbentzitu dituzte. Epigmenioaren bilaketa hiru eguneko bidaia bihurtuko da Mexiko Hiriko muga ikusezinak zeharkatuz, euren buruengandik eta atzean utzi uste izan zuten grebatik ezin dutela ihes egin jakinaraztera eramango dituen.

I.3_

Sorkuntza-laborategiak

Tabakalerako lan-filosofiaren oinarrian kultura esperimendazio- eta sorkuntza-laborategi gisa ulertzea dago; bertan, ezinbesteko dira “egizu zuk zeuk” edo “egizu besteekin” leloak, besteak beste. Sorkuntza-laborategiek kodea bere zentzurik zabalenean irekitzea proposatzen dute, teknologia azaleratzea, gauzek nola eta zergatik funtzionatzen duten ulertzen saiatzeko. Teknika, zientziarekin lotutako trebetasunak eta objektuak ez ezik, gorputzen, hizkuntzaren edo birtualtasunaren arteko erlazioa ere bada. Hacker etikarekin bat eginez, jarduera hauetan Tabakaleraren baliabideetara eta lan-filosofiara hurbiltzea proposatzen dugu; kulturara *egitetik* gerturatzeko. Ezagutza praktikoa erdigunean jarri nahi dira egitearen kulturak jakintza sortzen duela aldarrikatzeko.

Datak:

2021/22 ikasturtea

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:00-14:00

Iraupena:

1:30 min 3 saio

Pertsona kopurua:

15 pertsonako taldeak

Norentzat:

Ikastetxeak, elkarteak, unibertsitateak

Izen-ematea:

hezkuntza@tabakalera.eus

(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu)

HARRI, ORRI, AR: autoedizioa

Autoedizioa pertsona edo kolektibo batek sortutako argitalpena da, eta haren sorkuntza-prozesu osoa kontrolatzen du: edukitik, diseinutik eta produkzio-prozesutik hasita, hedapenera eta salmentara bitartean. Lantegi honetan, edizio artistiko bat sortzen da eta, horretarako, artisten lanak aztertu eta haien esperientziak interpretatzen dira, material, teknika eta Tabakalerako liburutegian eskuragarri dauden edukien erreferentzien bidez. Taldean, hainbat formatu deskubritzen dira, besteak beste argazki-liburua, fanzinea (fan-magazina) edo argitalpen anitza.

TIN.TA!: ESTANPAZIOA

Irudi digitek gobernaturtatuko errealitate honetan, pantailetatik irten eta gure ideia zein mezuak paperera ekartzea proposatzen dugu. TIN.TA! adierazpen grafikoko lantegi-laborategia da, gure leloak pentsatu, partekatu eta zabaltzeko espazioa. Gure gorputzak aldarrikatu eta estetika propioak sortzeko leku bat.

Iraupena:

1:30 min-ko saio bat edo 3 saio

Lantegia hainbat adin-tartetako pertsonentzat dago egokitua, eta unean uneko bertsioan (saio bakarra) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloko taldeentzat edo bertsio hedatuan (3 saio) Lehen Hezkuntzako 2. ziklotik aurrerakako taldeentzat izan daiteke.

3Dn SORTZEN: fabrikazio digitala

Fabrikazio digitalak ordenagailu bidezko diseinuaren eta produkzio mekanizatu edo automatizatuaren abantailak uztartzen ditu. Baina, zertarako balio du? Azken aurrerapen teknologikoak ezinbestean ari dira gure gizarteko esparru asko aldatzen. Besteak beste, teknologia berriak hezkuntza-esparruan erabiltzeak –3D inprimagailua, laser bidezko mozketak– hura eraldatzen lagun dezake. Garrantzitsua da teknologia horien funtzionamendua ondo ezagutzea berauek kritikoki aztertze eta beharrian jakinei erantzungo dieten proiektuak sortzeko. Lantegian oinarrizko funtzionamendua eta 3Dko inprimatze-prozesuak (diseinu-fasetik hasi eta objektuak produzitu arte) aztertuko ditugu, eta gure ingurune hurbilenean egindako proiektuak ezagutuko ditugu.

KONEKTATZEN: elektrizitatea, elektronika eta programazioa

Lantegi-multzo honetan berrikusi egiten dira elektrizitatearen, robotikaren, programazioaren eta elektronikaren oinarrizko kontzeptuak. Horien guztien funtzionamenduaren oinarriak ezagutuko ditugu, eta zirkuitu elektrikoak sortuko ditugu elementu elektronikoen bitartez. Halaber, jolasak eta eskuzko proiektuak baliatuko ditugu hizkuntza konputazionalera gerturatzeko, horixe baita programazio-lengoiaren oinarria. Hori guztia egiteko, besteak beste, Arduino eta Scratch software eta hardware askeko tresnak erabiliko ditugu.

ADI GORPUTZ HORRI! performance lantegia

Performancea gorputza lan tresnatzat hartzen duen ekintzan oinarritutako praktika artistikoa da. Ikusia izateko pentsatuta dago, leku zehatz batean gertatzen da, denbora jakin batean. Lantegi honetan, gorputzei lotutako praktika feministen metodologietatik abiatzen gara. Gure zaurgarritasunetik errorea ahots kolektiboaren bidez plazaratzen saiatuko gara.

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:00-18:00

Iraupena:

1:30 min-ko saio bat edo 3 saio

Performance lantegia hainbat adinetako pertsonarentzat dago egokitua, eta unean uneko bertsioan (saio bakarra) edo bertsio hedatuan (3 saio) egin daiteke. Hiru saio eginez gero, Tabakalera eta ikastetxean egingo da.

ARAU EROA: desnormalizazio lantegia

Zer esan nahi du *normala* izateak? Nola erabakitzen da zer den normala eta zer ez? Zer gertatzen da arautik kanpo egotean?

Jendarte eredu hegemonikoak gorputzak, identitateak eta praktikak arautzeko duen beharraz eta efikaziaz hausnartu, eta pertsonen artean sortzen diren botere harremanen inguruan lanketa egiten da.

Gorputzak mailakatzeko botere ardatz desberdinak daudela jakinda (arrazakeria, matxismoa, zapalitismoa, klasismoa...), pertsonen zapalkuntza eta pribilegioen arteko gurutzaketa behatuko dugu (intersekzionalitatea) eta kategoria horiek zalantzan jarri eta iraultzeko estrategiak eta praktikak ezagutu eta berrasmatuko ditugu.

Lantegiak dituen 2 saioetan zehar, zapalduen antzerkia edota performancea bezalako metodologietatik abiatuta, ezarri zaizkigun eta ezartzen ditugun etiketak irauliko ditugu eta hizkuntzak errealitatea sortzeko duen gaitasunarekin jolastuko dugu. Horrela, ahotsa, gorputza, soinua eta adierazpen bisualen bidez, gure buruaren *errelato ez normatibo* bat sortuko dugu.

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:00-18:00

Iraupena:

1:30 min-ko 2 saio

Espazioa:

Tabakalera eta ikastetxea edo talde parte-hartzailearen egoitza.

Deialdiak

Lantegiek eskaintzen diguten unean uneko harremanetik haratago, ibilbide luzeagoa duten prozesuak garatzeko dugun interesa asetu nahi dute deialdiek. Araututako hezkuntzatik kanpo geratzen garen eragilea izanda, hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan aritzeak elkarrengandik ikasteko aukerak irekitzen dituela uste dugu. Ikasturtean zehar luzatzen diren prozesu hauek aukera ematen dute eragile ezberdinen arteko harremanean sakondu, elkarrekin bide berriak esploratu eta hausnarketa bateraturako espazioak sortzeko.

2.1_

Eskola aldiriak

Eskola aldiriak deialdiaren helburua hezkuntza-komunitatearekin arteari eta hezkuntzari buruzko lankidetzaproiektu bat garatzea da. Deialdi honek lan egiteko moduak birpentsatzeko aukera ematen du hezkuntza-komunitatea indartzen duten ikasketaprozesuak martxan jarritz.

Ikasturte honetan zehar, zaintzak zeharkatzen duen eskola bizigarriago eta inklusiboago batera begira, eskola den instituzioaren baitan hezitzaileok dugun pentsatzeko, ulertzeko, begiratzeko, sentitzeko, egoteko, egiteko,... moduen inguruan elkarrekin hausnartzeko eta bide berriak esploratzeko espazioa sortu nahi dugu. Ez dakigunarekin dugun harremana ere baliagarri eginez, eta jakinminaren bidez bestelako ezagutzetara

gerturatuz, sarri baztertu egiten direnak. Galdera hauen inguruko hausnarketa eta elkarrizketa sustatu nahi dugu:

Zein harreman izan nahiko genuke gure komunitate hurbilenarekin? Zein erronkari egin behar diogu aurre hezkuntza-komunitate garen neurrian? Erronka hauen aurrean nolako ekarpena egin dezakete arte garaikidetik datozen metodologiek? Nolako da egiteko modu hauek eskaintzen diguten begirada? Nola hausnartu dezakegu zaintza modu transbertsal batean planteatzen duen eskolaren inguruan? Nola ahalbidetu dezakegu eskola eremu ireki eta anitza izatea? Nola landu aniztasuna eta zaintzak eskola den sistema konplexuaren baitan? Nola sustatu hezkuntza prozesu bizigarriagoak? Nola eragin dezakete praktika artistikoek elkarrekin ikasteko prozesu horietan? Zein kasutan bizi izan da gatazka ikasketa prozesu bat bezala? Nola sortu ikaspena errore bezala ulertzen diren esperientzietan?

2021/22 ikasturtean zehar prozesuan parte hartuko duten ikastetxeak hauek dira:

- Toki Alai ikastetxea (Irun)
- Oianguren BHI (Ordizia)

2.2_

Ikasgelatik medialabera: eskolekin proiektuak

Ikasteko moduak eta ikasgaiak etengabe aldatzen doaz eta hezkuntza eremuan ereduak eraldatzen ari dira. Eskola

proiektu baterako ideia daukazu baina ez duzue baliabide egoki edo ezagutza tekniko zehatzik? Praktika eta esperimendazioa ohiko prozesu batean txertatu nahiko zenukete? Klasetik atera eta espazio inspiragarri batean lan egin nahi duzue Tabakalerako lantaldearekin batera?

Deialdi honekin eskola esparrutik atera eta Tabakalerako Medialaben proiektu bat elkarrekin gauzatzea bilatzen dugu. Espazio desberdin bat deskubritu eta eskaintzen dituen aukera guztiak erabiltzeko esperientzia da. Irakasleen eta Tabakalerako lantaldearen artean proiektua diseinatuko dugu, gure lan-esparru espezializatuekin uztartuz: pentsamendu kritikoa, teknologia (elektronika, robotika, 3D inpresioa, animazioa eta bideo-jokoak), ikus-entzunezkoa (argazkilaritza, bideo eta zinema), soinua, autoedizioa eta arte plastikoak.

Deialdia HH, LH, DBH eta Batxilergoko eskolei zuzendua dago eta ikasturte bakoitzean lau eskola proiektu onartzen dira gehienez: bi proiektu Donostialdeko eskolentzat erreserbatzen dira eta beste biak Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein ikastetxetako proiektuentzat.

2021/22 ikasturtean zehar elkarrekin lan egiteko aukeratutako ikastetxeak honako hauek dira:

- Eguzkitza Ikastetxea (Irun)
- Anoetako Herri Ikastola (Anoeta)
- Egiluze Ikastetxea (Errenteria)

2021/2022 ikasturterako deialdia itxita dagoen arren, deialdiaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, medialab@tabakalera.eus helbidera idatz ezazu.

Eskola: ikerketa, pentsamendua eta hausnarketa

Tabakalerako hezkuntza arloan praktikatik hausnarketara eta pentsamendutik egitera salto egiten dugu lan filosofia moduan. Ez ditugu bi eremuak banatu nahi, bata besteaz elikatzen delako. Diskurtsoak gure praktika ezin duelako jan, eta alderantziz, hezkuntza-praktikari buruz hitz egin eta ikaspenak kolektibizatzea oso garrantzitsua delako.

Eskola hezkuntzako ikerketara zabalik dagoen gune bat da eta hainbat erabilera ditu: Euskal Herriko Unibertsitatearekin (Artikertuz ikerketa-taldea) lankidetzan aritzea, testuinguruko eta kanpoko sareetan lan egitea (Oinherri, edo estatuko beste erakunde batzuekin

jardunaldietan parte hartzea) eta hezkuntzako profesionalentzako eta interesa duten beste pertsona batzuentzako (irakasleak, hezitzaileak, ikertzaileak, artistak ...) pentsamendu-programak egitea.

Atal honetan, arlo horri lotutako hainbat esperientzia eta programa bildu ditugu.

3.1_

erro(re)tik: mintegia

erro(re)tik proiektua Tabakalerak eta Artaziak kooperatibak elkarrekin bideratzen duten gogoeta luzea da; aniztasuna, zaintza, komunitatea edo inklusioa bezalako terminoak birpentsatzen dituena. Daniel eta Nina Carasso Fundazioaren laguntzarekin 2021 eta 2022 urteetan zehar hiru lan-ildo garatzen dihardugu: hezkuntza- eta komunitate-prozesu bat osasun mentalaren, zaintzaren eta aniztasunaren ardatzetan oinarrituta; Tabakalerako lantaldeari, programei eta lan-moduei eragiten dieten formakuntzak; eta bi programa publiko.

Hemen aipatzen dugun hau, desbideratua eta erradikala terminoiez laguntzen dugun bigarren mintegia izango da, 2022ko maiatzean egingo dena. Desbideratua, errorea oinarri hartuta ikaskuntza sortzea proposatzen duen espazioa bat delako. Espero ez genuenari irekita dauden egiteko moduetan jarri nahi da arreta, eta hezkuntza-praktikak modu totalitario, absolutu eta barneraezinetatik urrundu. Izan ere,

beste leku horietatik araua aipatzea errazagoa da: ikusten ez dena, baina bere indarkeria guztiarekin diziplinatzen gaituena. Eta erradikala, errotik aldaketak sortu nahi direlako. Aldaketek, programei ez ezik, kultura-erakundearen egiturei ere eragiteko gaitasuna izan behar dute, eta zaintza, begirada komunitarioa edo parte-hartzea bezalako nozioei buruz errotik pentsatzeko aukera eman. Erosotasun-espazioetatik irtetera behartu nahi ditugu gure buruak, beste leku batzuk okupatzeko-ikusarazteko-seinalatzeko: atseginak ez diren lekuak, zentralak ez direnak, arautik ikusi nahi ez direnak. Erresistentzia-ahalmen osoa duten praktika eta bizipenak aldarrikatu nahi dira.

Datak:

2022 maiatza

Norentzat:

interesa duten guztiak

Izen-ematea:

hezkuntza@tabakalera.eus

3.2_

Irakasle komunitatea: lantegiak

Saio hauek irakasle komunitatearekin harremana estutu eta esperientziak partekatzeko helburua dute. Hezkuntza praktiketan, ikasgeletan, edota beste eremu batzuetan erabilgarriak izan daitezkeen baliabide artistikoak zabaldu eta metodologiak elikatu nahi dira. Aldi berean, irakasleek dituzten kezka eta lan-eskarmentuak bestean hezkuntza praktika ere elikatzen du, ezagutza biderkatuz.

Hainbat lantegi eskeiniko dira eta 2021/22 ikasturtean zehar bi multzo antolatatu ditugu:

Ikus-entzunezkoak eta identitatea

Nola sortu beste ikus-entzunezko irudikapen batzuk? Nola landu eskolan aniztasunaren erronka irudi eta soinuaren bitartez? Ikus-entzunezkoak toki zentrala dauka gazteen arteko komunikazioan gaur egun. Aldi berean, tresna hauek eredu hegemonikoei alternatibak sortzeko bitartekoak izan daitezke, ikasgelan aplikatzeko aukerak zabaltzen direlarik.

Programa:

Azaroak 5. Ostirala **16:00-19:30**

16:00- BERDE KROMATUA: ikus-entzunezko erremintak.

17:30- Atsedena.

18:00- ZINEMARAAAA. Ikasgelan erabiltzeko ikusentzunezko baliabideak.

Azaroak 6. Larunbata **10:00-13:30**

10:00- MUGI, GELDI, MOVIE: animazio lantegia.

11:30- Atsedena.

12:00- SEKUENTZIA ASKEA: zinema esperimentalak.

13:30- Pikoteoa eta esperientziak partekatzeko tartea.

Arteak, esperimentazioa eta teknologiak ikasgelan

Ikasgelan esperimentazio prozesuak martxan jartzea eta espresio modu desberdinen bitartez gure adierazpenak bideratzea dira saio honen helburu nagusiak serigrafia, autoedizioa edo fabrikazio digitala gai konkretu baten inguruan ikertzeko, sortzeko, mezuak zabaltzeko tresna lagungarriak izan daitezke guztion artean gogoeta kritikoak modu eraikitzaile eta ludikoan bideratzeko.

Programa:

Otsailak 11. Ostirala

16:00-19:30

16:00- 3Dn SORTZEN: fabrikazio digitalari buruzko lantegia

17:30- Atsedena

18:00- TIN.TA!: estanzazio-lantegia

Otsailak 12. Larunbata

10:00-13:30

10:00- HARRI, ORRI, AR: autoedizio-lantegia

11:30- Atsedena

12:00- SITU-AKZIOAK. Nola bideratu paisai sentzorialak eskolan.

13:30- Pikoteoa eta esperientziak partekatzeke tartea

INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEAK

hezkuntza@tabakalera.eus

Tabakalerako informazio puntua

T. +34 943 118 855

ERAIKINA

Astelehenetik ostiralera:

9:00-22:00

Larunbatak, igandeak eta jaiegunak:

10:00-22:00

Andre Zigarrogileak plaza 1,
20012. Donostia/San Sebastián
www.tabakalera.eus

